Enplegu nea

Lanpostu berriak sortzea helburu

2021

Lan eskaintzarik zabalena eskainiko du Tolosaldeko **Lan Merkatuko Topaketen 7. edizioak**. Horren aitzakian, begirada bat eman diogu eskualdeko Enpleguaren egoerari.

Tolosaldeko Enplegu Plana
www.tolosaldeagaratzen.eus



Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Tolosaldea garatzen

Tolosaldeko enplegua, errekuperatzeko bidean.

Eskualdeko Lan Merkatuaren urriko analisiaren arabera, aurten %12 jaitsi da langabezia eta 198 lanpostu berri sortu dira.

Osasun krisiak ondorio nabariak utzi zituen iaz ekonomian. Enplegua ez zen salbuespena izan. Hala ere, pandemia hasi aurreko datuak berreskuratzen hasia da Tolosaldea, enpleguari dagokionez; zenbaitetan, baita hobetzera iritsi ere. Halaxe diote Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Tolosaldea Garatzenek helarazitako urriko datuek. Jarraian datu esanguratsuenen errepasoa egin dugu.

Nolakoa da langabeziaren egoera?

1.934

langabetu daude Tolosaldean une honetan. Urte hasieran 2.196 ziren.

%8,2

-an dago langabezia tasa. 2018an %9,4an zen; %8,4an 2019an, eta %9,3an 2020 amaieran.

2.179

ziren 2018. urteko Enplegunearen atarian lanik gabe zeudenak.

%8,8

-koa da Gipuzkoako batezbesteko langabezia, eta %11koa EAEkoa.

Langabezia-tasaren bilakaera



Zeri erreparatzen diogu enplegua errekuperatzen ari dela esaten dugunean?

Langabetu kopurua eta langabezia tasa adierazle onak dira enpleguaren unean uneko egoera neurtzeko. Baina badira kontuan hartu beharreko aldagai gehiago ere: lan-kontratuak, afiliatu kopurua eta, bereziki, lanpostuen sorrera ere aztertu beharrekoak dira.

198 lanpostu berri

Azken 12 hilabeteotan 243 afiliazio sortu dira erregimen orokorrean, eta 45 galdu autonomoetan.

lan-kontratuak +%14

Igo egin da erregistratutako lan-kontratu kopurua: urrian 1.460; iazko epealdi berean 1.286.

mugagabeak, %11

Lan-kontratuen kopurua oraindik oso txikia den arren, igotzen ari da.

autonomoak %24

Afiliatu guztien artean, 3.626 dira autonomo gisa daudenak.

17.386 afiliatu

Erregimen orokorrean daudenak 13.233 dira; 3.646 RETAn, 442 etxeko langile modura; eta 65 lehen sektorean.

Kontratuen eta langabetuen hilabeteko bilakaera



Eskaneatu QR kode hau Tolosaldeko Lan Merkatuaren Analisiaren txosten osoa deskargatzeko. Datu guztien xehetasunak topatuko dituzu bertan, baita enpleguari buruzko adierazle gehiago ere.

Zeintzuk dira lan eskatzaileak?

Tolosaldean lan bila dabiltzanen profilari buruzko datuen arabera, honelakoa da pertsona horien erretratua, gero eta nabarmenago.

sektoreak

Langabeen gehiengoa (%63) zerbitzuetan ari zen lanean; %15 industrian; %5 eraikuntzan eta %4 nekazaritzan. Gainerako %13a, enplegurik gabekoak dira.

generoa

%58 emakumea. Nabarmen ari da igotzen, gainera.

+adina

45 urtetik gorakoa da %48. Nabarmen igo da profil hau ere.

jatorria

Estatuan jaiotakoa da lan bila ari den eskualdeko biztanleen %77.

langabezian

%54ak denbora luzea darama lanik gabe, eta nabarmen ari da igotzen kopurua.

kualifikazioa

%64 kualifikazio apaleko lanpostu bila dabil.

ikasketak

%63k derrigorrezko ikasketak (OHO-DBH) ditu.

Iker Urruzola
Tolosaldea Garatzeneko Lehendakaria - Zizurkilgo alkatea

Enpleguaz:

“Errekuperazioaren urtea izan zitekeela esanez hasi genuen 2021a, eta joera baieztatu da. Nolanahi ere, erronka asko ditugu: emakumeen eta 45 urtetik gorakoen laneratzea, enpresen lehiakortasuna indartzea, langabe eta langileen kualifikaziorako formazioa, edota enpleguaren baldintzak eta lan-kontratuen iraupenak hobetzea. Horretarako lanean jarraituko dugu”

Enpleguneaz:

“Elkarlan publiko-pribatua mesedegarria da eskualdearen garapen ekonomikorako. Enpleguneak, enpresei laguntza--lerro zuzena eskaini ez ezik, langabeei ere lan munduan sartzeko aukera eskaintzen die. Azken batean hori da Enplegunearen helburu nagusiena: lanpostu berriak sortzea. Asko dira Enpleguneari esker lanean hasitakoak, eta pozgarria da batzuk leku berean jarraitzen dutela ikustea. Benetako helburua, lan munduan sartzeaz gain egonkortasuna eta lan baldintza duinak izatea delako.”

Olatz Peon
Tolosaldea Garatzeneko Lehendakariordea - Tolosako alkatea

Enpleguaz:

“Enpleguaren berreskurapena errealitate bilakatu da azken urteotan, iazko ezohiko egoerak sortutako salbuespenarekin. Norabide berean aritu gara erakundeok –enplegu programa edota laguntzen bidez– eta enpresek horri jarraitzeko konpromisoa erakutsi dute, apustu sendoak eginez. Guztion arteko elkarlan horren emaitza da egoera hau”

Enpleguneaz:

“Sei urtez egin da Enplegunea, eta nolabaiteko erreferentzialtasuna lortu du: bai enpresen artean, baita lan aukera berrien bila ari direnen artean ere. Hori ondo egindako lanaren isla ere bada, erakusten baitu benetan egitasmo baliagarria izan dela eskualdean enplegua sustatzeko. Lanpostu berriak sortu dira, gerora mantendu direnak, eta horren bila datoz enpresak, baita langileak ere”

Ia 400.000 euro, Tolosaldeko enpresetan 63 kontratazio sustatzeko.

Abenduaren 3an ospatuko da Enplegunea, Lehiberri Zentroan, 08:00etatik 17:00etara bitartean.

Enplegunea enpresen eta lan eskatzailen arteko topalekua da, eta eskualdean enplegua sustatzeko ezinbesteko egitasmo bihurtu da.

Alde batetik, Lanbideren bitartez, kontratazioetarako diru-laguntzak ematen zaizkie Tolosaldeko enpresei. Enpresak eta lan bila dabiltzanak aurrez aurre ere jartzen ditu: lanpostu bakoitzeko hautagai egokienak elkarrizketatu ditzakete enpresek, eta elkarrizketa errealak egiteko aukera ematen die lan bila dabiltzanei.

Enpresentzat:

Kontratazioetarako diru-laguntzen baldintzak.

Diru-laguntza	Hilabetean 1.000€-ko diru-laguntza lanpostuko.
Epealdia	Gehienez 6 hilabeterako laguntza, 6.000€ guztira.
Lan-eremua	Enpresek egoitza Tolosaldean izan behar dute.
Eskualdekoak	Tolosaldean erroldatutako pertsonen kontratazioa.
Kontratu mota	Ez da formazioko edo praktiketako kontraturik onartuko.
Lanbide	Kontratatutako pertsonak Lanbiden altan egon behar du.
Kontratazioak	Kontratazio epea: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.
Azken eguna	Kontratazioa egiteko epe muga: abenduak 31.

Lan bila daudenentzat:

Nola parte hartu Enplegunean?

1. Izena eman	Hurrengo orrialdeko lan-eskaintzen zerrenda ikusi, eta interesekoak zaizkizun horietan izena eman **lan3@tolosaldea.eus** helbidera idatziz edo **943 654 501** telefonora deituta.
2. Lanbide	Kontuan izan Lanbiden alta emanda egon beharko duzula.
3. Elkarrizketa	Enpresa bakoitzak, bilatzen duen profilera hobekien egokitzen diren hautagai egokienen zerrenda egin, eta elkarrizketak egingo ditu.
4. Hitzordua	Zerrenda horretan bazaude, hitzordu bat emango dizu Enplegu Sailak, abenduaren 3an Lehiberri Zentrora elkarrizketa egitera gerturatu zaitezen. Zatoz zure kurrikuluma hartuta.

Enplegunea 2021

LANPOSTU MOTA	LANPOSTUA	KOPURUA
Komertzioa	Saltzailea	1
	Kutxazain-apal betetzailea	1
	Harategirako saltzailea	1
Ostalaritza	Zerbitzaria	1
	Parrillako sukaldaria	1
	Sukaldari laguntzailea	1
	Zerbitzari launtzailea	1
Administrazioa	Admnistraria	1
	Administrari Laguntzailea	1
	Enpresa Sailerako teknikaria	1
Gizarte lana eta etxeko lanak	Etxeko lanetarako interna	3
	Hezitzailea edo gizarte lana	1
Hizkuntzak	Ingeles irakaslea	1
	Zeinu hizkuntza itzultzailea	1
Lan komertziala	Komertziala. Arlo industriala	2
Ibilgailuak	Tailerreko langilea	2
	Kotxe pilotoko gidaria	1
	Ibilgailuen mekanikaria	1
Mantenua	Mantenu peoia	3
Industria, elektrizitatea eta elektronika	Makina laguntzailea	1
	Mekanikaria	1
	Muntaia mekanikoa	1
	Entseguekin lan egiteko langilea	1
	Tornularia	1
	Instalazio termikoetako proiektatzailea	1
	Operarioa	1
	Muntai teknikaria	10
	Elektrogailuen muntaia eta instalazioa	1
	Elektromekanikaria	1
	Kaldereroa/soldatzailea	1
	Elektrikari-elektronikoa	1
Ehungintza	Ehungintza operarioak, jostunak	2
Zerbitzuak	Banatzailea	1
	Ile-apaintzailea. Ofiziala	1

Ikusi lan-eskaintzen zerrenda eguneratua webgunean

Zer diote Enpleguneaz, parte hartu izan duten enpresek?

"Lanpostuak sortzeko lagungarria da laguntza hau"

Xabier Urruzola
Inazio Urruzola Txakolindegia

Sei lagunek egiten dute lan Alkizako Inazio Urruzola Txakolindegian. Bi dira proiektuaren sustatzaileak, eta kontratatuta dituzten lau langileetatik hiru Enpleguneren aurreko edizioetatik datoz, diru-laguntza honi esker.

“Nahiago ditugu horrelako diru-laguntzak, pragmatikoagoak direnak, eguneroko ekoizpenean eragina dutenak, bestelako laguntza batzuk baino. Sei hilabeterako laguntza da, baina ez da hori bakarrik: gure aldetik ere bada konpromiso bat, ondoren lanpostu horiek hor geratu izan direko, gure kasuan behintzat. Hortaz, lanpostuak sortu eta enpresaren hazkunde eta bilakaerarako lagungarria da”.

Administraziorako, mahasti zaintzarako, sukalderako edo komunikaziorako... profil ezberdinetako jendea bilatu izan dute Enpleguneren beste edizioetan. Aurten, administrari laguntzaile baten bila jo dute: “Tolosaldetik mundu guztirako egiten dugu txakolina. Kontratatutako pertsonak erronka politak izango ditu, herrialde askorekin komunikazioa izango baitu; eta, era berean, lurrari eta lehen sektorearen garaikotasunari lotutako lanak ere gertutik biziko ditu”.

“Irabazi asmorik gabeko elkarteentzat bultzada garrantzitsu bat da”

Nadia Boujemaa Zabala
Jatorkin Al Nahda Elkartea

Iazko diru-laguntzei esker hasi ziren Jatorkin elkartean lanean Nadia eta Josune, eta bertan jarraitzen dute lanean. Elkarteak diru-laguntza hauen bitartez bi pertsona kontratatzen zituen lehen aldia izan zen, eta bultzada handia eman dio.

“Gizarte zerbitzuei dagokienean eskaria asko handitu den honetan, gisa honetako elkarteentzat giza-baliabideak izateko baliagarria da. Sekulako bultzada ematen die. Kontuan izan behar da egiten diren proiektuen araberako diru-laguntzak jasotzen dituztela elkarteek, eta urtero kolokan izaten dutela beren funtzionamendua, proiektu horiek garatzeko pertsonak ere behar direlako. Giza-baliabiderik gabe, ezin proiektuak garatu”.

Lanean hasi zirenetik bultzada hori asko nabaritu du elkarteak, Nadiaren esanetan: “Inoiz baino proiektu gehiago garatu ahal izan ditugu; eta horri esker, inoiz baino erabiltzaile gehiago izan ditugu, jende gehiagorengana iritsi ahal izan dugulako”.

Enplegunea datutan 2020

“Kontratazioak lehenago egitea ahalbidetzen digu”

Nagore Arocena
Lan Distribución

Joan den urtean izan zuen logistika arloko Zizurkilgo enpresa honek Enplegu Planaren berri, eta diru-laguntzei esker pertsona bat kontratatzeko aukera izan zuen. Aurten ere parte hartzea ari dira pentsatzen: azken erabakia falta zaie. Erabaki hori denboran aurreratzeko balio izaten du Enpleguneak, bere ustetan.

“Diru-laguntza garrantzitsua da enpresentzat. Kontratazio baterako ez ezik, aldi baterako lan kontratu bat mugagabe egiten ere laguntzen du. Askotan zalantzak izan ditzakegu, eta honelako laguntzek erabaki hori hartzen laguntzen dute. Baita azkartzen ere. Agian pentsatua dugu kontratazio hori egitea, baina etorkizun baterako utzi beharrean, lehenago egitea ahalbidetzen digu”.

Horrez gain, Tolosaldea Garatzenek eskura dituen hautagaien curriculumak beren eskura uztea ere garrantzitsua dela dio: “Batzuetan bilatzen dugun profilarekin bateragarriak dira, beste batzutan ez. Baina jendea ezagutzeko balio du”.

2020ko kontratazioak

14	22	36
Erakunde publikoetan	Enpresatan	Guztira

Generoa

20	16
Emakume	Gizonezko

Adina

6	14	16
16-25 urte bitartekoak	25-45 urte bitartekoak	+45 urte

Herriz herri

2	1	19
Abaltzisketa Alkiza Leaburu-Txarama Zizurkil	Altzo, Amezketa, Asteasu, Hernialde Ibarra, Irura, Larraul, Lizartza, Villabona	Tolosa

Sektoreka



Enplegu nea

2021

Tolosaldea garatzen

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

AURREZ HITZORDUA ESKATU!

¡SOLICITA CITA PREVIA!

lan3@tolosaldea.eus
943 654 501

OSTEGUNA, 2021eko azaroak 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Tolosaldeko gizarte eragileak